

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 873

*169/2023 EBAZPENA, otsailaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren eskainitako destinoak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko Lekualdatze lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloari dagozkionak.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako, zeinetan Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoria / lanpostu funtzionala sartzeko baita (2021eko azaroaren 8ko EHAA 221. zk.), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 15eko 520/2021 Ebazpenaren bidez (azararen 30eko EHAA 238. zk.), Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko eskaintza argitaratu zen, Osakidetza zerbitzu-erakundeetan destinoa duten D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko kategorietarako / lanpostu funtzionaletarako, zeinetan Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoria sartzeko baita.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 7ko 1012/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu egin dira onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitzen dira eskainitako destinoak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloari dagozkionak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzeko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari helarazi dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda, 1314/2021 Ebazpenaren I. eranskineko D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoen zerrendan jasotakoa. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, Ebazpen honen I. eranskinaren bidez, D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko onartutakoen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 520/2021 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Onartzea, Ebazpen honen II. eranskinaren bidez, D3 Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko baztertutako behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoia adierazita. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 520/2021 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 520/2021 Ebazpenaren eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaia, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileak, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen bada, hilabeteko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAAn destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenetan badago.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 oinarrian xedatutakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2023ko otsailaren 20a, astelehena

## I. ERANSKINA

521/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA

LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***6465**	Barragan Cuevas, Antonio	48,6250
2	***4827**	Iriondo Soto, Jaime Ricardo	48,0000
3	***4782**	De La Tajada Montoya, Juan Ignacio	38,1250
4	***1174**	Bujan Vazquez, Javier	37,0000
5	***3199**	Rodriguez Calderon, Angel Miguel	36,0000
6	***5621**	Alboniga Ugarte, Fernando	35,1250
7	***2010**	Lopez Cortajarena, Joseba Josu	33,7500
8	***3559**	Pazo Estefania, Aitor	31,7500
9	***4653**	Gutierrez Fernandez, Jose Manuel	27,6250
10	***2577**	De Dios Calabor, Juan Carlos	25,0000
11	***4930**	Perez Martinez, Felipe	22,5000
12	***2774**	Pablos Gutierrez, Heli	17,7500
13	***7696**	Fernandez Viñas, Felix Javier	11,2500

2023ko otsailaren 20a, astelehena

## II. ERANSKINA

521/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

NAN	Izen-abizenak	Baztertzeko Arrazoia
***9534**	Gutierrez Hernando, Javier	Lehiaketan atzera egin du
***1138**	Seco Velez, Pedro Antonio	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen
***2586**	Zapatero Palacios, David	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen

2023ko otsailaren 20a, astelehena

## III. ERANSKINA

521/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA

LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA

KATEGORIA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

NAN	Izen-abizenak	Zerbizuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***6465**	Barragan Cuevas, Antonio	Barakaldo-Sestaoko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Sestaoko EAG-Sestao / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 Ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	
***4782**	De La Tajada Montoya, Juan Ignacio	Uribeko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Areetako EAG-Getxo / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 Ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	
***1174**	Bujan Vazquez, Javier	Barakaldo-Sestaoko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Sestaoko EAG-Sestao / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 Ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	
***3199**	Rodriguez Calderon, Angel Miguel	Uribeko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Areetako EAG-Getxo / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 Ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	
***2010**	Lopez Cortajarena, Joseba Josu	Barrualde-Galdakao ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Basauriko EAG-Basauri / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 Ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	2013-12-03
***3559**	Pazo Estefania, Aitor	Barakaldo-Sestaoko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Sestaoko EAG-Sestao / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 Ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	
***2577**	De Dios Calabor, Juan Carlos	Bilbao-Basurtuko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Deustuko EAG-Bilbao / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 Ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	